

Biblioteca bat



ARITZ GALARRAGA

Elias Canetti izan zen idazle bat, jaiotzez bulgariarra, jatorriz sefardia, alemana erabili zuena osatzeko bere obra. Familiakoek gaztelania, neskameek bulgariara, zazpi edo zortzi hizkuntza hitz egiten ziren jaioterrian, garrantzitsua zen asko ongi jakitea. Gurasoek alemanez egiten zioten elkarri, ordea, “ez nuen euren artekoa ulertzeko baimenik”. Aitarekin harreman ona zuen. Amari zuzenean zion herra, “aita hil ondoren alemana irakatsi zidan arte”, behintzat. Garai bikaina izan zen orduan hasi zena: “Alemanez egiten hasi zen ama nirekin”. Alemana, beraz, “berandu eta egiazko minekin landatutako ama-hizkuntza izan zen” Canettirentzat.

Mihia aske memoria liburuan kontatzen du hori guztia, eta amak zein mespretxurekin gaitzetsi zuen Stefan Zweigen *Jeremias* lana: “Papera! Lasto hutsa! Nabari da berak ez duela ezer bizi izan. Hobe luke Barbusse irakurriko balu, eta ez horrelakorik idatzi!”. Literatura berebizikoa baitzen Canettitarrenean. Aitarekin dagoeneko piztu zitzaion grina, “gerora taxutu nauen ia guztia aitaren maitasunak bultzatuta zazpi urterekin irakurri nituen liburu haietan jasota zegoela jada”. Aldiz garai hartako gauzarik garrantzitsuena, kitzikagarriena eta bereziarena, alde handiz, “amarekin nituen irakurketa-arratsak eta irakurketa haiei lotutako solasak ziren”. Pentsa: “Fedea inoiz eragin ez zion suharra sentitzen zuen Shakespeare irakurtzen”.

Nik ez dut halako irakurle-historia epikorik, noski. Ezin dut esan hamar urterekin jada klasiko guztiak irakurritu neuzkanik, kapaz nintzela Homeroz hitz egiteko aitamekin. Gure etxean ez zegoen irakurzaletasun handirik. Baina ezta irakurzaletasunaren kontrako jarrerarik ere. Are bazegoen biblioteca bat, minimoa, irregularra, nahikoa zeozer pizteko nigan. Gaurko egunetik, biblioteca txiki bat –eta ama-hizkuntza pare bat, ados–, ez nieke askoz gehiago eskatuko gurasoei. Ez diet askoz gehiago utziko oinordetzan seme-alabei. ●



“JOSE IGNACIO ASENSIO GEZURRETAN ARI DA”

GURASOS

Gipuzkoako erraustegiaren afera ikertzen jarraitzen duela adierazten duen oharra bidali zuen Europako Parlamentuko Eskueren Batzordeak, maiatzaren 11n. Aldiz, Asensiok maiatzaren 28an kontrakoa zabaldu zuen, batzorde horrek GuraSOSek eskatutakoa atzera bota zuela esanaz. “Asensiok gezurra esaten du eta modu eskandalagarrian manipulatu du; batzuetan erabateko ezjakintasunetik abiatuta, beste batzuetan Zubietako erraustegiaren aferaren gaineko ageriko inkompetentziarekin”, dio GuraSOSek eta oraingoan Europako erakundeekiko “errespetu falta” ere egotzi dio. **2020/06/02**

